

ENPRESAK | EMPRESAS

**Konexioak\_Lab**  
Deialdia | Convocatoria  
2026

ksigune

WWW.KSIGUNE.EUS

## KSIgune gara.

Ongi etorri **Konexioak**-era, ikasleak zein irakasle eta ikertzaileak Euskadiko arteetako, kulturako eta sormeneko profesionalekin eta enprekin lankidetzan aritzeko programara.

Lankidetzan horretan laguntzeko, Konexioak programak **3 deialdi egiten ditu (\_LAB, \_PREST eta \_HAZI), topaketak antolatzen ditu** programan parte hartzen dutenekin (**\_TOPA**) eta zure proiektua garatzeko **etengabeko laguntza emateko zerbitzua du.**

## Somos KSIgune.

Te damos la bienvenida a **Konexioak**, el programa para que estudiantes y personal docente e investigador colaboren con profesionales y empresas de las Artes, la Cultura y los sectores creativos en Euskadi.

Para apoyar esa colaboración, Konexioak cuenta con **3 convocatorias (\_LAB, \_PREST, \_HAZI), encuentros** con las personas participantes del programa (**\_TOPA**) y **un servicio de apoyo continuado** para el desarrollo de tu proyecto.



## ● Zer da Konexioak\_Lab?

Konexioak\_Lab Euskadiko kultura eta sormen industriren erronkei erantzuteko irtenbide berritzaileak diseinatzeko deialdia da.

**Enpresek erronka bat proposatzen dute**, eta hainbat diziplinatarako **gradu, master edo doktoregoko ikasleek erronka horri heltzen diete taldean eta enpresarekin lankidetzan arituz.**

### Lau fase ditu:

**1** Enpresek beren prozesu, produktu edo zerbitzuekin lotutako **erronka estrategikoak** proposatzen dizkiote KSIguneri, eta behin betikoak aukeratzen dira.

**2** **Gradu, master edo doktoregoko ikasleak** gonbidatzen dira interesatzen zaien erronkan parte hartzeko. Ondoren, erronka bakoitzari erantzungo dieten taldeak hautatzen dira.

**3** **8 aste irauten duen bootcamp-a** egiten da. Bootcampa esperimentatzeko eta elkarrekin ikasteko espazioa da, non erronka bakoitzerako irtenbideak diseinatu eta testatzen diren. Enpresak saio nagusietan parte hartzen du, prozesuari buruzko feedback-a ematen du eta azken prototipoa baliozkotzen du.

**4** **Bootcampen emaitzak** zabaltzen dira **eta** proiektu bakoitzaren **gastuak justifikatzen dira.**

## ● ¿Qué es Konexioak\_Lab?

Konexioak\_Lab es una convocatoria para diseñar soluciones innovadoras en respuesta a desafíos de las Industrias Culturales y Creativas en Euskadi. **Las empresas proponen un reto y estudiantes de grado, máster y doctorado** de distintas disciplinas **lo abordan en equipo, y en colaboración con la empresa.**

### Tiene cuatro fases:

Empresas proponen a KSIgune **retos estratégicos** vinculados a sus procesos, productos o servicios, y se seleccionan los definitivos.

Se invita a **estudiantes de grado, máster y doctorado** a participar en el reto de su interés y se seleccionan los equipos que responderán a cada reto.

Tiene lugar el **bootcamp de 8 semanas**, un espacio de experimentación y aprendizaje colaborativo donde se co-diseñan y testean las soluciones a cada reto. La empresa participa en sesiones clave, aportando feedback sobre el proceso y validando el prototipo final.

Se difunden los **resultados del bootcamp y se justifican los gastos** de cada proyecto.

## ➤ (Berr)aktibatu zure proiektua

Mugarri izan daitekeen ideia hori lantzen hasteko unea da...

Enpresa bazara, erronka bat proposatu nahi baduzu eta zure jarduera nagusia Euskadiko sektore hauetako batean edo batzuetan sartzen bada. Hau interesatzen zaizu!

## ➤ (Re)activa tu proyecto

Es el momento de trabajar en esa idea que tenías y que puede marcar la diferencia...

¡Te interesa! Si eres empresa y tu actividad principal está enmarcada en uno o varios de los siguientes sectores en Euskadi.



### Kultura:

- Arte Eszenikoak
- Ikusizko Arteak
- Ikus-entzunezkoak eta Multimedia
- Liburua eta Prentsa
- Musika
- Kultura Ondarea

### Sormena:

- Arkitektura
- Artisautza
- Diseinua
- Gastronomía Sortzailea
- Hizkuntzaren Industriak
- Moda
- Publizitatea
- Bideojokoak

### Cultura:

- Artes Escénicas
- Artes Visuales
- Audiovisual y Multimedia
- Libro y Prensa
- Música
- Patrimonio Cultural

### Creatividad:

- Arquitectura
- Artesanía
- Diseño
- Gastronomía Creativa
- Industrias de la Lengua
- Moda
- Publicidad
- Videojuegos

## ➤ Erronken deialdia

Konexioak\_Lab deialdian kultura eta sormen sektorearen egungo erronkei erantzuten lagundu nahi dugu. Horretarako, **beren jarduerarekin eta sektorearen beharrekin lotutako proposamenak planteatu nahi dituzten enpresak bilatzen ditugu**, ikuspegi hauetatik konponbide berritzaileak eskatzen dituztenak:

- Ikuspegi batetik baino gehiagotik aztertzea: sormenezkotik, teknologikotik, artistikotik, estrategikotik, zientifikotik, sozialetik, eleanitzetik...
- Ezagutza diziplina anitzeko profilen eta eremuen artean trukitzea.
- Ikertzea eta taldean lan egitea.
- Proposamenak benetako eragina izan dezaten.

Erronka horiek taldean esperimintatzera eta ikastera bultzatzen dute, eta proiekturako eta Euskadiko kultura eta sormen ekosistemarako balioa sortzea dute helburu.

**Emaitza hauek lortuko dira: prozesuak berritzea, produktu edo zerbitzu berriak garatzea, edo etorkizunean aplikatzeko ahalmena duten ideia berriak aztertzea.**


## ➤ Convocatoria de retos

En Konexioak\_Lab queremos contribuir a responder a los desafíos actuales del sector cultural y creativo. Para ello, **buscamos empresas que quieran plantear retos vinculados a su actividad y a las necesidades del sector** que requieran soluciones innovadoras desde:

- Un abordaje desde enfoques múltiples: creativo, tecnológico, artístico, estratégico, científico, social, multilingüe...
- El intercambio de conocimiento entre perfiles y ámbitos multidisciplinares.
- Investigación y trabajo en equipo.
- Propuestas para un impacto real.

Estos retos invitan a experimentar y aprender en equipo, y buscan generar valor para el proyecto y el ecosistema cultural y creativo en Euskadi.

**Tendrán como resultado la innovación en procesos, el desarrollo de nuevos productos o servicios, o la exploración de nuevas ideas con potencial de aplicación futura.**



## ➔ Zer emango dizu Konexioak\_Lab-ek?

- **Unibertsitateko talentu talde bat**, zure erronkari erantzuteko 8 astez ikertzen arituko dena eta zurekin lankidetzan arituko dena. Zure proiektu profesionalean hobekuntzak sartzeko aukera, ikuspegi berriak eta metodologia berritzaileak gehituz.
- **Diziplina anitzeko ikuspegia eta ezagutza osagarria**, zure ikuspegi sektoriala eta ezagutza osatzeko aukera. Etorkizunean aplikatzeko ahalmena duten prototipoak, metodologiak edo irtenbideak testatzeko aukera, ziurgabetasuna eta inplementazio arriskuak murriztuz.
- **Gehienez 4.000 euro\* eskeintzen ditugu behar den irtenbidea garatzeko, proiektuaren premien arabera.** Gainera, lana errazteko eta laguntza metodologikoa emateko zerbitzu bat eskaintzen dizugu ikaskuntza, kontzeptualizazioa eta diseinua gidatzeko, baita ikasle taldeak proposatutako irtenbidea baliozkotzeko ere, esperimantazio ingurune egituratu batean.
- **Lurraldean inpaktu handiagoa sortzeko aukera**, zure proiektua Euskadiko hezkuntzaren eta sormenaren ekosistemarekin elkartuz.


## ➔ ¿Qué te aportará Konexioak\_Lab?

- **Un equipo de talento universitario** dedicado durante 8 semanas a investigar para responder a tu reto y colaborar contigo. Una visión multidisciplinar y conocimiento adicional que complemente tu visión sectorial y conocimiento.
- **Una oportunidad de introducir mejoras en tu proyecto profesional** incorporando perspectivas frescas y metodologías innovadoras. La posibilidad de testear prototipos, metodologías o soluciones con potencial de aplicación, reduciendo incertidumbre y riesgos de implementación.
- **Hasta 4.000 euros\* para el desarrollo de la solución, en función de las necesidades del proyecto.** Además, te ofrecemos un servicio de facilitación y apoyo metodológico para guiar el aprendizaje, la conceptualización, el diseño y la validación de la solución propuesta por el equipo de estudiantes, en un entorno estructurado de experimentación.
- **La posibilidad de generar un mayor impacto en el territorio**, conectando tu proyecto con el ecosistema académico y creativo en Euskadi.

\* 4.000 euroko aurrekontuaren banakapena: % 30 enpresaren koordinazio lanak eta % 70 erronkaren ebazpena.

\* Desglose del presupuesto de 4.000 euros: 30% tareas de coordinación de la empresa y 70% resolución del reto.

- **Ezagutu aurreko edizioko erronkak!**
- **¡Descubre los retos de la edición anterior!**




ERRONKA

Artea, natura eta teknologia ospitale-inguruneetan ongizatea sustatzeko, esperientzia murgiltzaileen bidez.

RETO

Arte, naturaleza y tecnología para el bienestar en entornos hospitalarios mediante experiencias inmersivas.



Ikus-entzunezko prozesuen hobekuntza AAre bidez, eta ekoiztetxearen kudeaketako zenbait alderdi automatizatzeko.

Mejora de los procesos audiovisuales mediante IA para y automatizar aspectos de la gestión de la productora.



Biodiseinuan eta landa-hondakinetan oinarrituta, arte eszenikoetarako eszenografia modular biodegradagarriaren garapena.

Desarrollo de escenografía modular biodegradable para las artes escénicas a partir de biodiseño y residuos rurales.

## ➔ Ikertzen, ikasten eta sortzen duten buruak

Batzuetan, begirada berri batek dena aldatzen du. Konexioak\_Lab zure erronkak beste diziplina batzuetara zabaltzeko, beldurrik gabe esperimintatzeko eta talentu gazte eta askotarikoarekin batera sortzeko gonbidapena da. Ideiak probatzeko, aukera berriak aurkitzeko eta galdera errealak aukera bihurtzeko espazio bat.

**Bootcamp hau ikerketa-prozesuari ahalik eta etekin handiena ateratzera bideratuta dago:** erronka eta haren inplikazioak aztertzea, ideiak garatzeko denbora eskaintzea eta balizko irtenbideak proposatzea. Ikasle-taldeak enpresari baliabide bat eskainiko dio, kolektiboki sortutako ezagutzaren emaitza izango dena; baliabide hori probatu ahal izango da, eta ondoren implementatu ere bai.

## ➔ Menten que investigan, aprenden y crean

A veces, una mirada nueva lo cambia todo. Konexioak\_Lab es una invitación a abrir tus retos a otras disciplinas, experimentar sin miedo y cocrear junto a talento joven y diverso. Un espacio para probar ideas, descubrir nuevas posibilidades y transformar preguntas reales en oportunidades.

**El bootcamp está enfocado en sacar el mayor partido al proceso de investigación:** analizar el reto y sus implicaciones, dedicar tiempo a desarrollar ideas, y proponer posibles soluciones. El grupo de estudiantes ofrecerá a la empresa un recurso, fruto del conocimiento generado colectivamente, que podrá ser testado y posteriormente implementado.

# ➤ Nola baloratuko dugu zure proposamena? ¿Cómo valoraremos tu propuesta?

## ➔ Zehaztasuna, garrantzia eta sektoreari egiten zaion ekarpena. Gehienez 40 puntu

Erronka zehazki eta argi eta garbi definituta al dago? Zer balio erantsi, berrikuntza edo eraldaketa sor dezake? Unean uneko premia izatetik haratago, lagungarria al da Kultura eta Sormen Sektoreek aurrera egiteko?

## ➔ Ikuspegia eta hurbilketa. Gehienez 10 puntu

Gaur egungo zer problematikarekin dago erlazionatuta? (problematika digitalak, ingurumen arlokoak edo gizarte arlokoak) Zenbateraino landu behar da jasangarritasunaren, inklusioaren edo generoaren ikuspegitik?

## ➔ Diziplinartekoa izateko eta ikasteko duen ahalmena. Gehienez 20 puntu

Landu al daiteke hainbat diziplina eta profiletatik? Lagungarria al da ezagutzak hibridatzeko eta trukatzeko? Aukera bat al da ikasteko esperientzia garrantzitsua izateko ikasleentzat?

## ➔ Bideragarritasuna eta implementazioa. Gehienez 20 puntu

Teknikari eta denborari dagokienez, bideragarria al da erronka Bootcamp-aren esparruan aztertzea? Zer espektatiba daude proposamenaren irtenbidea epe labur, ertain eta/edo luzean inplementatzeko?

## ➔ Enpresaren konpromisoa. Gehienez 10 puntu

Zer baliabide jar zenitzake ikasle taldearen eskura ikertu beharreko erronka aztertzeko? Nola lagunduko duzu Konexioak\_Lab-en izan duzun parte-hartzea eta zure proiekturako lortutako emaitzak hedatzen? Nola susta dezakezu euskararen erabilera prozesu honetan?

## ➔ Concreción, relevancia y contribución al sector. Hasta 40 puntos

¿Es un reto concreto y está claramente definido? ¿Qué valor añadido, innovación o transformación puede generar? ¿Está relacionado con el avance de los Sectores Culturales y Creativos más allá de una necesidad puntual?

## ➔ Enfoque y aproximación. Hasta 10 puntos

¿Con qué problemáticas contemporáneas (digitales, ambientales o sociales) está relacionado? ¿En qué medida precisa ser abordado desde enfoques como la sostenibilidad, la inclusión o la perspectiva de género?

## ➔ Potencial interdisciplinar y de aprendizaje. Hasta 20 puntos

¿Puede abordarse desde distintas disciplinas y perfiles? ¿Favorece la hibridación y el intercambio de conocimientos? ¿Supone una oportunidad para una experiencia de aprendizaje significativa para estudiantes?

## ➔ Viabilidad e implementación. Hasta 20 puntos

¿Es viable técnica y temporalmente abordar el reto en el marco del Bootcamp? ¿Cuáles son las expectativas de implementación de la solución de la propuesta a corto, medio y/o largo plazo?

## ➔ Compromiso de la empresa. Hasta 10 puntos

¿Qué recursos podrías poner a disposición del grupo de estudiantes para abordar el reto a investigar? ¿Cómo contribuirás a la difusión de tu participación en Konexioak\_Lab y los resultados obtenidos para tu proyecto? ¿Cómo puedes favorecer el uso del euskera en este proceso?

## ➤ **Aurkeztu orain zure proiektua!** ➤ **iPresenta ahora tu proyecto!**

1. Erregistratu gure plataforman: <https://gunedigital.eus>
2. Sartu izena emateko formularioan.
3. Bete eskatzen den informazioa eta bidali zure hautagaitza.

Plataformaren bidez honako hau egin ahal izango duzu:


- Laguntza eskatu eta zalantzak argitu txataren bidez.
- Deialdiaren egoerari eta emaitzei buruzko jakinarazpenak jaso.
- Konexioak programak eskaintzen dituen beste aukera batzuen berri izan.

1. Regístrate en nuestra plataforma: <https://gunedigital.eus>
2. Accede al formulario de inscripción.
3. Rellena la información solicitada y envía tu candidatura.

A través de la plataforma podrás:

- Solicitar ayuda y resolver dudas mediante el chat.
- Recibir notificaciones sobre el estado y el resultado de la convocatoria.
- Conocer otras oportunidades del programa Konexioak.

### DATA GARRANTZITSUAK | FECHAS IMPORTANTES



➔ **Erronka bat, galdera ireki bat edo aztertu nahiko zenukeen ideia bat baduzu, Konexioak\_Lab leku egokia da hasteko.**

➔ **Dena irakurri ostean, zalantzarik baduzu...**

Ikusi aurreko edizioa nolakoa izan zen gure laburpen [bideoan](#).

Zuri laguntzeko gaude. Idatzi [ksigune@ksigune.eus](mailto:ksigune@ksigune.eus) helbidera.

➔ **Si tienes un reto, una pregunta abierta o una idea que te gustaría explorar, Konexioak\_Lab es un buen lugar para empezar.**

➔ **Y si después de haber leído todo, aún tienes dudas...**

Descubre cómo fue la edición pasada en nuestro [vídeo](#) resumen.

Estamos aquí para ayudarte. Escríbenos a [ksigune@ksigune.eus](mailto:ksigune@ksigune.eus).



# Konexioak \_Lab

**ksigune**

WWW.KSIGUNE.EUS

## Jakin gehiago KSIguneri buruz

**Euskadiko kulturaren eta sormenaren zerbitzura dagoen klusterra gara.** Enpresa edo profesionala bazara, zure eskura jartzen ditugu: kontaktu akademikoak eta zure proiektura hobekien egokitzen den ikerketa; zure gaitasunak handitzeko prestakuntza baliabideak; eta ekimen berrietan parte hartzeko aukera.

## Conoce más sobre KSIgune

**Somos el clúster al servicio de la cultura y la creatividad de Euskadi.** Si eres empresa o profesional, ponemos a tu disposición: los contactos académicos y la investigación que mejor se adapte a tu proyecto; los recursos formativos para incrementar tus competencias; y la posibilidad de colaborar en nuevas iniciativas.